

Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria

Lehen Hezkuntza



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676
alboanar@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: **ALBOAN**

Data: martxo 2011

Itzulpena: Elhuyar

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-378/2011

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Aurkibidea

1. Hitzaurrea	5
2. Nola erabili lehen hezkuntzarako material osagarria	9
2.1. Lehen hezkuntzako Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgaiko zer gai-multzo landu daitezke material honetako jarduerekin?	9
2.2. Nola aurkitu jarduerak gidaliburuan? Adibide praktikoa	11
2.3. Zeintzuk dira jarduera-gida egiteko erabili diren jatorrizko baliabideak?	19
3. Jarduera-gida	21
1go gai-multzoa. Banakoak eta pertsonen arteko harremanak eta harreman sozialak	22
2. gai-multzoa. Komunitatean bizitzea	27
3. gai-multzoa. Gizartean bizitzea	37
4. Baliabide osagarrien eranskina	43

1. Hitzaurrea

Desafio bat da gaur, beti izan den bezalaxe, heztea. Ahalik eta erantzun egokiena eman behar diogu desafio horri, hartara beste mundu posible bat eraiki ahal izan dezagun.

Hiritar kritikoak eta beste mundu posible bat eraikitzeko konpromisoa dutenak heztea da, gaur egun, hezkuntzaren desafio hori.

Hiritartasuna da talde bateko sentitzea eta pertsonen eta erakundeek guztien onerako jarduteko eta guztiak babesteko konpromisoa izatea, bereziki ahulenei begira. Hiritartasuna protagonista bihurtzen da gizarte konprometitu eta bidezko bat eraikitzeko. Hiritartasuna estatu jakinen mugez eta legezketasunaz haratago doa. Munduko hiritarrez dihardugu.

Prestakuntza da banakoen eta taldeen gaitasunak zabaltzea, gizarte-errealitatean eragiteko hezkuntza- eta gaitze-prozesuen bidez. Prozesu horien bidez, banakoa garatzeko eta gizartean eta politikan parte hartzeko ezinbestekoak diren jarrerak eta gaitasunak lortzen dira.

ALBOANek hiritar arduratsuak, konprometituak eta inklusiboak prestatzen lagundu nahi du, eta, horretarako, bidegabekeriak sortzen dituen kultura-eredu dominanterako **alternatibak emango dituen hezkuntzarako, komunikaziorako eta gizarte parte hartzerako** proposamenak eskaintzen ditugu.

Hiritartasunerako Hezkuntza bat, zeinak:

- **Bereziki** eskubide eta betebeharren, parte hartze sozialaren eta bakearen kulturaren alde egiten baitu (kulturartekotasuna, bakea, giza eskubideak, etab.).

- **Gizon-emakumeen** arteko berdintasunaren alde egiten baitu, eta, horretarako, kontuan hartzen du genero-ekitatea hezkuntza-materialetan, neskak guztiak hezkuntzarako bidezko sarbidea izan dezatela aldarrikatzen du eta bizitzako eremu publiko eta pribatu guztietan gizon-emakumeen arteko genero-harreman bidezkoagoak sustatzen ditu.
- **Eragin** politikoaren eta sareetako parte hartzearen bidez, Hegoaldean baztertutako kolektiboen bizitzari eragiten dioten erabaki-eremu politikoetan eragiten baitu; horretarako, guk dugun hiritartasunerako hezkuntzaren ikuskera eta hura sustatzeko nahia gurekin partekatzen dituzten erakundeekin hitzarmenak egiten ditugu.
- **Gure** lanaren berri eraginkortasunez ematen baitu; gizartea aldatzeko egiten dugun lana eta gure ingurunean gizartearen atxikimendu handiagoa eta agerpen publikoa lortzeko bitartekoa izatea.

Gure ustez, munduko egiazko hiritarrak heztea **irakasgai batean lortu daitekeena baino harago doa**, baina irakasgai hori hezkuntza-aukera bikaina da, eta baliatu egin behar dugu aukera hori garatzeko.

Hiritarren parte hartzea sustatuko duten hezkuntzarako eskubidea haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan hasten dela deritzogu: **“haur guztiak partekatu ditzakete norberaren bizitzari nahiz komunitateko bizitzari eragiten dioten erabakiak”**. Maiztegui, C. eta Eizaguirre, M. (2008) *Ciudadanía y educación: de la teoría a la práctica*. 84. orrialdea.

ALBOANek material didaktikoak sortzeko egindako lanari esker, irakasleek Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgaiaren erabil ditzaketen jarduerak eskain ditzakegu.

Material honetan, hezkuntza-proposamenak gida moduan aurkezten ditugu, irakasleek lehen eta bigarren hezkuntzako eta batxilergoko zikloetako irakasgaietan gai-multzoak lantzeko material osagarriak izan ditzaten. Jarduerak antolatzeko garaian, kontuan izan dugu irakasgaiaren programazioaren orientazioa, BOEn, NAOen eta EHAAn jasotako moduan.

Gidarekin batera, CD-DVD bat dago, eta bertan jaso dira gida honetarako jarduerak aukeratzeko erabili ditugun baliabideak.

Azkenik, argitalpenaren amaierako eranskinean, Hiritartasunerako Hezkuntza lantzeko **ALBOAN**ek dituen proposamen gehiago aurkituko dituzu.

- **Proposamen** batzuk sarean daude: www.alboan.org
- **Beste** proposamen batzuk Bilbao, Iruñea, Donostia eta Gasteizko egoitzetan aurkituko dituzu.

2. Nola erabili lehen hezkuntzarako material osagarria

Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarri honetan, jarduera-multzo bat topatuko duzu, metodologia aktibo eta parte hartzailean oinarritua. Jarduera horiek **ALBOANek** azken urteotan irakasleen lana errazteko prestatu dituen material didaktiko guztien artean aukeratu dira.

Hemen aukeratutako jarduerak garatu ahal izateko, **ALBOANek** material honekin batera aurkeztutako “Hezkuntza-materialak” CD-DVDra jo behar duzu.

2.1. Lehen hezkuntzako Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgaiko zer gai-multzo landu daitezke material honetako jarduerekin?



1. GAI-MULTZOA: Banakoak eta pertsonen arteko harremanak. Norbere iritzia eta usteak adieraztea, pertsonaren duintasuna eta sexu-aldeak onartzea¹.

- a. Autonomia eta erantzukizuna. Norbere nortasuna eta norbere eta gainetako emozioak, ongizatea eta interesak balioestea. Enpatia garatzea.
 - Sentimenduak eta zirrarak, identifikatzea eta adieraztea*.

¹ Hiru gai-multzoak berdinak dira BOEn, NAOn eta EHAAn. Izartxo batekin markatu ditugu irakasgaiak Euskal Herriko curriculumean dituen berezitasunak.

- b. Giza duintasuna. Giza eskubideak eta haurren eskubideak. Eskubideen eta betebeharren arteko erlazioak.
 - Eskubideen, erantzukizunen eta betebeharren arteko erlazioak*.
 - Pertsonen arteko adeitasunezko eta elkarlaneko harremanak*.
 - Kulturen artean komunikatzeko gaitasuna*.
- c. Sexu-aldeak onartzea. Gizon-emakumeen arteko desberdintasunak identifikatzea*. Gizon-emakumeen eskubide-berdintasuna balioestea familian, lan-munduan eta gizartean.



2. GAI-MULTZOA: Komunitatean bizitzea. Giza harremanak, elkartasuna, gizarte-erantzukizuna eta parte hartzea sustatzea, pertsona eta kultura aniztasunerako hurbilpena.

- a. Gizabidezko balioak gizarte demokratikoan: errespetua, elkartasuna, justizia, lankidetzeta eta bakearen kultura.
- b. Gizabidezko balioak aplikatzea ingurune hurbileko bizikidetzan eta gatazka-egoeretan (familia, ikastetxea, lagunak, herria). Gainerako jendearekin bizikidetzeta-arazoak eta interes-gatazkak konpontzeko ulermen-jarrerak, elkartasuna eta elkarrizketari balioa emateko jarrerak garatzea.
- c. Parte hartzeko eskubidea eta betebeharra. Parte hartzeko bideak balioestea.
 - Parte hartzeko eskubidea. Parte hartzeko moduak eta eskubideak, eta erantzukizunak nork bere gain hartzea*.
- d. Erantzukizuna parte hartzen duen taldeko kide moduan dagozkien eskubide eta betebeharrak indibidualak gauzatzean, eta talde horretako eginkizunetan eta erabakietan parte hartzea.
- e. Gizarte-, kultura- eta erlijio-aniztasuna. Errespetu kritikoa norberarenaz bestelakoak diren ohitura eta bizimoduekiko. Baztertze-egoerak, desberdintasunak, diskriminazioa eta gizarte-injustizia identifikatzea.



3. GAI-MULTZOA: Gizartean bizi-zea. Bizikidetz-araue-
n, ondasun publiko-arekiko errespetu-aren eta gizabidezko ohitu-
rak sustatze-aren beharra.

- a. Gizarte-bizikidetz-
a. Elkarrekin bizi-ze-ko arauak zehazte-ko beharra. Es-
p-aini-ako konstituzio-
an jasotzen diren bizikidetz-
a-printzipio-ak.
 - Hiritarrek Estatu-aren eskutik -Udala, autonomia erkidego eta estatu-
aren administrazio orokorra- jasotzen dituzten herri-ondasunak eta
zerbitzu publiko-ak identifikatze-
a, estimatze-
a eta zaintze-
a eta guztiok
zergen bidez hauen mantentze-
ko emandako laguntze-
aren garrantzia
baloratze-
a. (Euskadin ez)
- b. Gizabidezko ohiturak. Babes zibila eta hiritarren lankidetz-
a hondamen-
di-kasuetan. Hiritarren segurtasun integrala. Defentsa bake-aren zerbi-
tze-
rako konpromiso etiko eta solidariotzat hartze-
a.
 - Gizabidezko ohiturak: ardua osasun-arekiko, kontsumo arduratsue-
-
kiko eta ingurumen-arekiko. Animalie-
-
kiko errespetua*.
- c. Bideko mugikortasun-
-
arauak errespetatze-
a. Zirkulazio-
-
istripue-
-
n kausak
eta arrisku-
-
talde-
-
ak identifi-
-
katze-
a (oinezko-
-
ak, bidaiari-
-
ak, txirrin-
-
dulari-
-
ak, etab.).
 - Gizartean parte hartze-
-
ko egiturak eta moduak*.

2.2. Nola aurkitu jarduerak gidaliburuan?

Materiala prestatze-
-
ko garaian, jarduerak hiru bilaketa-
-
mota erabiliz lortze-
-
ko formatuan prestatu ditugu. Jarduera bakoitzari buruz emandako informazio-
-
kategorietatik abiatuz, gure beharretara gehien egokitzen direnak aukeratu di-
-
tze-
-
kegu, eta, aukeratu ondoren, CD-DVDan bilatu, urrats jakin batzuk eginez.
Erabiltzen dugun kategoriaren arabera, bilaketa sinplea (Lehenengo aukera),
bilaketa azkarra (Bigarren aukera) edo gai-multzoen arabera bilaketa (Hiru-
garren aukera) aukeratu beharko dugu.

Jarraian, jarduera baten adibide praktiko baten bidez azalduko ditugu bilake-
-
ta-aukerak eta jarduera aurkitze-
-
ko urratsak.

Adibide praktikoa: Nola aurkitu printzesa gudaria?

Hau da jarduerari buruz gidan jasotzen den informazioa²:



Izenburua:
PRINTZESA GUDARIA



Jardueraren deskribapena:
Emakumeek gizonen eskubide berak dituzte? Eta zer diozu erantzukizunei buruz? Ikasleen artean Printzesa gudaria ipuina banatuko da.



Iturria:
Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; eskubi-deak eta betebeharrak.



Gaia:
Eskubideak eta betebeharrak/Hezkidetzak.



Iraupena:
60 minutu.

² Jarduerari buruzko informazioan ez dugu adina jarri, material honetako jarduera guztiak lehen hezkuntzako ikasle guztientzat baitira: 6-12 urte.

1. **Bilaketa simplea:** aukeratutako jardueraren izenburua idatzi eta haren deskribapena izateko edo interesatzen zaigun gai bat idatzi eta materialek gai horri buruz ematen dizkiguten aukera guztiak ikusteko erabil dezakegu.

Titulua bilatuko dugu: **Printzesa gudaria**



bilaketa simplea
bilaketa simplea

ALBOAN bilaketa

PRINTZESA GUDARIA bilaketa bilaketa berria

Titulua	Deskribapena
Printzesa gudaria	Emakumezkoek gizonezkoek besteko eskubideak al dituzte? Eta betebeharrak? Ikasleen artean printzesa gudariaren ipuna banatuko da. Bakoitzak berea irakurrita, generoarekin erlazioaturiko jardura batzuk proposatuko dira.
Printzesa gudaria	Emakumezkoek gizonezkoek besteko eskubideak al dituzte? Eta betebeharrak? Ikasleen artean printzesa gudariaren ipuna banatuko da. Bakoitzak berea irakurrita, generoarekin erlazioaturiko jardura batzuk proposatuko dira.

Jarduera aukeratu eta deskribapena ikusiko dugu.

The screenshot shows the ALBOAN website interface. At the top, there is a navigation bar with the logo 'ALBOAN' and several menu items: 'bilaketa', '+ emailtzak', 'MUNDUKO HIRITARROK', 'JINETATE BIDAETIKOAK', 'ERAKUSKETAK', 'GIDAK', and 'IKUS: FITZANEZKO MATERIALIA'. Below the navigation bar, there is a breadcrumb trail: 'azala > menua > munduko hiritarrok > eskubideak eta betebeharrak > lehen hezkuntza'. The main content area is titled 'Titulua: Printzesa gudaria'. Underneath, there is a section 'Deskribapena:' which contains two paragraphs of text. The first paragraph explains that the activity is for students who have completed the 'Munduko Hiritarrok' activity and asks if they are ready for a more challenging activity. The second paragraph describes the activity as a role-play where students act as a queen and her subjects, with the queen having to solve a problem. Below the description, there are several sections: 'Iturria:' (Source), 'Gaiak:' (Keywords), 'Arloak:' (Subjects), 'Zikloa Eta Adina:' (Cycle and Age), 'Iraupena:' (Duration), 'Materialak:' (Materials), and 'Aktibitatea burutzeko fitxa osagarria:' (Additional worksheet for completing the activity). At the bottom of the page, there are buttons for 'Inprimatu' (Print) and 'Irakasleen ebaluazioa' (Teacher evaluation).

ALBOAN bilaketa + emailtzak MUNDUKO HIRITARROK JINETATE BIDAETIKOAK ERAKUSKETAK GIDAK IKUS: FITZANEZKO MATERIALIA

azala > menua > munduko hiritarrok > eskubideak eta betebeharrak > lehen hezkuntza

Titulua: Printzesa gudaria

Deskribapena:

Emakumezkoek gizonezkoek besteko eskubideak al dituzte? Eta betebeharrak? Irakasleen artean printzesa gudariaren ipuina banatuko da. Bakoitzak berea irakurrita, generoarekin erlazionaturko jarduera batzuk proposatuko dira.

Irakasleek fitxa 5.1 ean planteatutakoaren arabera beste ipuin bat marraztu eta idatzi beharko dute. Era berean, taldeko bilduko dira azaldutako kontuen gainean hausnartzeko. Jarduera landuko den mallaren arabera, ipuina banakako irakurketarako bana daiteke edo irakasleak kontu dezake.

Iturria:

Aktibitate hau etikako ikasgaiari Lehen Hezkuntzan lantzeko proposatzen da. Eskubideak eta betebeharrak atalean kokatzen da, Munduko hiritarrok

Gaiak:

Eskubideak eta betebeharrak / Hezkidetzak

Arloak: Etika **Zikloa Eta Adina:** Lehen Hezkuntza guztia / 6-12 urte

Iraupena: 60 minutuko saio bi

Materialak: Fitxa 5.1

Aktibitatea burutzeko fitxa osagarria: Fitxa 5.1


Inprimatu Irakasleen ebaluazioa

Jarduerak material osagarria badu, deskargatu egin ahal izango dugu. Adibi-dearekin jarraituz, behealdean klik egingo dugu, 5.1 fitxan, deskargatzeko.

Fitxa 5.1.

Printzesa gudaria

<p>Urrutiko heri batean, gudan auzarta bat errega izendatu zuten. Daniel izena zuten. Errega berria ezoratu egin zen eta Daniela izeneko abaloak botan zuten. Erregina gade zelarik hi zen eta berek alaba haz bezhar izan zuten.</p> <p>Erregak, bere ministroek kezakatu arren, printzesa arte gutxielako aduzaz inguratu eta gudarako prestatu zuten. Danielak bere garatan neska gukhi batzuek pluzden aukera hales gutxiak aprobetxatu zuten bere alari eskerrik emanaz.</p> <p>Ministrok, Daniela buruan zutela, edozein arte eta erresumako neska eta gazteak boronkarako prestatzea deklaratzen zuten lege bat onatu zuten.</p> <p>Urteak aurrera egiten zuten eta "Daniel handia" zahartzen ari zen. Bere ministrok, heria merxean eta engainurik zutelarik, bere kezuak hasiako balentzatu izatean konbentzitzen saiatzen ziren. Erregak, hasik, erantzun egin zuten: Hurrengo erregina neure alaba Daniela izango da!".</p> <p>Ministroak kezatu kezatu egin ziren: "Emakume bat? Ezinezkoa da!".</p> <p>Leherengoa ministroak konbentzitu nahian: "Hemak ez du berek esandikoa beteiko. Heritarrek zu bezain indartsu den norbait nahi dute".</p> <p>Erregak, bere alabaren gaitasunez seguru zegoela, tonoliko esan zuten araba indartsu bati: "Bere oro auzarta da! Erakutsa nahi ez duzue?".</p> <p>Ministrok, bere postua gaitzeko belduz, ez zion kontrakorik esan eta zera gaineratu zuten: "Hiru</p>	<p>egin barru, herian jakit opesuko diru. Zure alaba lehoie hitzaz ardua dabilake".</p> <p>Erregak larritu egin zen printzesa bizi zatekeen arriskuak partekatuz, baina ez zion errotika egiteari eskerrik eman. Ministroek alde egitean Daniela oteu eta gertatutakoaren berri eman zion. Printzesa, bere alari eskerrik eman eta heria, ministroek merxatu eta engainatuta zeukelana kontuan hartuz, onartu egin zuten.</p> <p>Baina gau hartan, neskek, beldurrik iragrituta, jauregik irtea egin zuten. Ekiole batera heldu eta hostatu eskatu zuten. Han zegoela atengabe entzun ari izan zuten lehoie onak.</p> <p>Ehiztariak, etxolako jabeak, honako esan zion: "Lehoiek nire etxola inguruan dabilta. Bihar ehizatza pango nait eta bitan bat niki düt, seguru nago".</p> <p>Neska zitu bitan irian zen esportale eta hurrengo hiru egunetan zehar baso eta herrietan barrena ibili zen. Leku gutxielan entzuten zuten lehoie buruz hitz egiten. Urteak batordeko hasien topu egin eta irtea egin behar zuten. Elata zagoen! Zer egin zatekeen?</p> <p>Eguna heldu zen. Herriko plaza beteata zegoen. Lehoienak koroa, sate utzeko prest. Neska ez zen inondik ageri.</p> <p>Ministro batzuek, heria erregearen kontra matxinatzen ahalgiritzen ari zirela, zera ohukalten zuten: "Emakume da, ez da ezabatu!".</p> <p>Erregak etabta so egiten zuten bidaritz eta plazako sarrerantz... azkenean azatu zen arte.</p>
--	--


Esko - Erjoo - Lehen hezikuntza
4

2. Bilaketa azkarra: adina, gaia eta zer arlo landu nahi den aukeratu daiteke, eta kategoria horiekin erlazionatutako jarduera guztiak ikusi.

Hezkuntza-zikloa aukeratu dugu: Lehen hezkuntza, 6-12 urte.

Curriculum-arloa aukeratu dugu: Arlo guztiak.


Gaia aukeratu dugu: Hezkidetzeta.

Titulua	Deskribapena
Gnomo arrosa	Adierazten al ditugu pertsona guztiak gure sentimenduak? Ezberdintasunik ba al dago emakume eta gizonen artean? Zertan laguntzen digu sentimenduak eta emozioak libreak adierazteak? Irudi edo marrazki baten bidez adieraz genitzake ipuineko eszenak?
Printzesa gudaria	Emakumezkoek gizonzkoek besteko eskubideak al dituzte? Eta betebeharrak? Ikasleen artean printzesa gudariaren ipuina banatuko da. Bakoitzak berea irakurrita, generoarekin erlazionaturiko jarduera batzuk proposatuko dira.
Printzesa gudaria	Emakumezkoek gizonzkoek besteko eskubideak al dituzte? Eta betebeharrak? Ikasleen artean printzesa gudariaren ipuina banatuko da. Bakoitzak berea irakurrita, generoarekin erlazionaturiko jarduera batzuk proposatuko dira.
Ural	Pertsona guztiok al dauzkagu aukera berberak bizitza duina izateko? Emakume eta gizonen artean adibidez ba al dago desberdintasunik, eta biro eta aberatsen artean? Zer egin dezakegu honi aldatzeko?

Jarduera aukeratu eta bilaketa sinpleak eman digu deskribapen bera aurkituko dugu (Lehenengo aukera).

3. Orrialdearen eskuinean agertzen diren gai-multzoen arabeko bilaketa:

Munduko hiritarrok, Unitate didaktikoak, Erakusketak Gidak eta Ikus-entzunezko materiala, jardueraren atalean zehazten denaren arabera bilatzen da jarduera. Kasu honetan, jardueraren gai-multzoa izango litzateke Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Munduko Hiritarrok aukeratuko dugu.



Macromedia Flash Player 7

ALBOAN bilaketa

azala > menua > munduko hiritarrok

Proiektuaren aurkezpena munduko hiritarrok:

"Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara" diziplina anitzetarako hezkuntza-proposamen bat da eta herritartasuna konzeptua lantzea du helburu. Proiektua zuzendua dago ikastetxei (irakasleak, ikasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak) eta aisialdi taldeei. Proposamen transbersala da eta ondorioz ikasgaietako edukietatik abiatuz herritartasun konprometitu eta solidarioa eraikitzea bideratzen du.

Proposamenak hiru gai lantzen ditu eta hauen denboralizazioa malgua da: Eskubideak eta betebeharrak, Parte-hartzea, Gatazken konponketa.

Proiektuaren helburua da lehenengo kontzientzia hartzea herritar bezala persona guztiok ditugula eskubideak eta betebeharrak betetzeko eremu desberdinetan. Izan ere, guztiak ez diren eskubideak gutxi batzuen pribilegioak bilakatzeko dira. Hori honela izan ez dadin, beharrezkoa dugu inplikatzeko eta errealitate aldatzeko parte hartzea. Eremu ezberdinetan parte-hartzeak laguntzen du guztiok mundu honetako protagonista bilakatzeko eta mundu hau justu eta duinago izaten pertsona guztiengak. Ordea, parte hartzen dugunean, pertsona ezberdinekin harenanetan jartzen gara; interes eta behar ezberdinak dituzten pertsonekin. Ondorioz, batzuen gatazak sortzen dira. Hori dela eta, proiektuaren azken fasean gure jarrerak, gaitasunak eta mekanismoak landuko ditugu gatazka maneiatzen ikasteko eta horiek aukera bilakatzeko.


Diziplina anitzetarako proposamen honek erreturto ezberdinak eskaintzen ditu, gai bakoitzeko:

- Oinarriko dokumentu proposamenerako
- Girotzeko hamar kartel
- Curriculumera egokituak dauden lau karpeta proposamen didaktikoekin: lehen Hezkuntza, bigarren Hezkuntza eta batxilergoa
- Jokoa (lehen hezkuntzarako batik batik)
- Bideoa eta hau lantzeko gida didaktikoa hainbat jarduerekin (bigarren hezkuntza eta batxilergorako)

Gaiak ondorengoak dira:

- [Eskubideak eta betebeharrak](#)
- [Hiritartasun umbertsala lortzeko parte hartzea](#)
- [Gatazken konponketa](#)

Eskubideak eta betebeharrak aukeratu eta lehen hezkuntza aukeratu dugu.



Macromedia Flash Player 7

ALBOAN bilaketa

azala > menua > munduko hiritarrok > eskubideak eta betebeharrak > lehen hezkuntza

Lehen hezkuntzarako proposatutako hezkuntza materiala

Hezkuntza etapa honi dagokion diziplina kurrikular bakoitzetik eskubide eta betebeharren orera lantzeko aukera ematen duten jarduerak ezberdinak proposatzen dira.

Airloak	Jarduerak
Ingurunearen ezagutza: Ingurumen osasuntsu bat izateko eskubidea eta errespetatzeko betebeharrak lantzen dira.	Bizirik dezagun Zain ezazu zure orria
Matematika: Kontsumitzeko eskubidea eta era arduratsu batean egiteko betebeharrak.	Zer behar dugu? Problema segida
Arte hezkuntza: Erreturtoetarako eskubidea eta banaketa egokia egiteko betebeharrak.	Musika sortzen dugu Munduko soinua Bakarren dijak...
Ingelesa: Elkarbizitzarako arauak errespetatzeko garrantzia eta beharra.	Simon says Helio
Hizkuntza: Lanerako eskubidea eta ezagutzeko betebeharrak.	Munduko steak Aida dezagun moda
Gorpuz-hezkuntza: Eskubideak bermatzeko orera gordetzeko beharra, eta guztietan, ezberdina izateko eskubidea eta aniztasuna errespetatu eta baloratzeko betebeharrak.	Berdinak edo ezberdinak? Zubiak eraikitzen Ura!
Erlijioa: Ikastetxea giroten duten posterrren gaineko lana proposatzen da, bai eta gure harrimena ikasgaien arautu dezaketen eskubide eta betebeharrak batzuen definizioa ere.	Italditxoa gure eskubideetatik Eskubideak eta betebeharrak aldatzen ditugu Eskubideak eta betebeharrak imalintzen Zeritzuk dira gure eskubide eta betebeharrak? Printzeak gudarria
Etika: Ikastetxea giroten duten posterrren gaineko lana proposatzen da, bai eta gure harrimena ikasgaien arautu dezaketen eskubide eta betebeharrak batzuen definizioa ere.	Italditxoa gure eskubideetatik Eskubideak eta betebeharrak aldatzen ditugu Eskubideak eta betebeharrak imalintzen Zeritzuk dira gure eskubide eta betebeharrak? Printzeak gudarria

Honetaz gain, informazio eta proposamen gehiago aurki ditzakezun web brikak dituzu.

2.3. Zeintzuk dira jarduera-gida egiteko erabili diren jatorrizko baliabideak?

Jarraian, **ALBOAN**en baliabideen aurkezpen-laburpen bat egingo dugu; baliabideen artean daude material honetarako aukeratutako jarduerak (iturria atalaren fitxa bakoitzean agertzen direnak dira).

MUNDUKO HIRITARROK, Gure munduko protagonistak gara:

Diziplina anitzeko proposamen bat da. Hiritartasunaren gaia lantzen du, eta irakasgaiko programako edukiekin lotzeko aukera ematen du; horrenbestez, hiritartasun arduratsua eta solidarioa eraikitzen laguntzen du.

Hiru gai-multzo ditu: Eskubideak eta betebeharrak, Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea, eta Gatazken konponketa.

- **Eskubideak eta betebeharrak:** Giza eskubideak gizaki guztien eskubide direla defendatzen da; pertsona guztien eskubideak ez direnak gutxi batzuen pribilegioak dira. Eskubideek betebeharrak dituztela ere defendatzen da, ezinbesteko korrelazioa baitago euren artean, eta eskubideak nahiz betebeharrak familia, ikasgelan, auzoan eta hirian ditugula.
- **Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea:** Antolatutako pertsona askoren ahaleginari eta parte hartzeari esker lortu dira gauza gehienak gizartearen. Horretarako, eremu hurbilenetan (familia, auzoa, herria) parte hartzen hasi behar da, eta ohartu munduan parte hartzeko modu ugari daudela. Parte hartzearen bidez, gure munduko protagonistak izan gaitetze, eta guztiontzako mundu duin eta bidezkoago bat eraiki dezakegu.
- **Gatazken konponketa:** Gatazkek gizarte-bizitzako eta giza harremanetako berezko elementutzat hartzen dira. Ez dugu haien beldur izan behar, batzuetan aberastu egiten gaituen aniztasun batetik sortzen baitira. Gatazkek aukera onak dira pertsonak eta gizarteak hazteko eta hobetzeko. Komeni da gatazka eta indarkeria bereiztea. Gatazken arrazoiak, moldeak eta modu baketsuan konpontzeko moduak ere aztertzen dira, gatazkek aukera bihurtzeko.

3. Jarduera-gida

Jarraian, Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgaien osagarri moduan erabil daitezkeen jarduerak aurkezten ditugu, lan-multzo berdinetan ordenatuta, jarduera ikasleekin landu nahi dugun gai-multzoaren arabera aukeratzeko.

- 1go gai-multzoa.** Banakoak eta pertsonen arteko harremanak eta harreman sozialak
- Nire album pertsonala
 - Beldurrik gabe!
 - Ibilalditxoak gure eskubideetatik
 - Zeintzuk dira gure eskubideak eta betebeharrak?
 - Parte hartzeko jokoa
 - Eskubideak eta betebeharrak imajinatzen
 - Printzesa gudaria
 - Gnomo arrosa

- 2. gai-multzoa.** Komunitatean bizitzea
- Zubiak eraikitzen
 - Bake-asmoa
 - Zer egin hau egiteko...
 - Urakana dator!
 - Txontxongiloa
 - Gogor zapalduz
 - Asma dezagun ipuin bat!
 - Expo-partaidetza
 - Kokatzen
 - Hartu hitza
 - Zer dio gure gorputzak?
 - Plan ona
 - Bizikidetza orekatuaren alde
 - Banatzen duenak...
 - Enkartelada
 - Alda dezagun irudia
 - Berdinak edo ezberdinak?
 - Ura!

3. gai-multzoa. Gizartean bizitzea

- Bizikidetzeta-dekalogoa
- Simon Says
- Birzikla dezagun
- Zain ezazu zeure orria
- Tantzaz tanta
- Alda dezagun moda
- Problema segida
- Zer behar dugu
- Automobileran edo autobusean?
- Hedapen azkarra



1go gai-multzoa. Banakoak eta pertsonen arteko harremanak eta harreman sozialak

a. Autonomia eta erantzukizuna. Norbere nortasuna eta norbere eta gainerakoen emozioak, ongizatea eta interesak balioestea. Enpatia garatzea.



Nire album pertsonala



Ezagutzen al dugu elkar, egiaz, ikaskideok? Ea pisten bidez gai garen ikaskidea edo irakaslea nori buruz ari den asmatzeko! Elkar gehiago ezagutzeak elkar hobeto ulertzen laguntzen du? Eta gatazkak prebenitzen laguntzen du?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Gatazken konponketa.



Gatazken konponketa, Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa, Aniztasuna.



40 minutu.



Beldurrik gabe!



Zer sentitzen dugu beldurtuta gaudenean? Zergatik sentitzen dugu beldurra? Nola egin diezaiekegu aurre beldur horiei? Saiatuko gara beldur bat gaingintzeari edo gatazka bat konpontzeari buruzko ipuin bat idazten?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara;
Gatazken konponketa.



Gatazken kudeaketa, Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutu.

b. Giza duintasuna. Giza eskubideak eta haurren eskubideak. Eskubideen eta betebeharren arteko erlazioak.



Ibilalditxoa gure eskubideetatik



Leku eta espazio guztietan eskubide eta betebeharrak berak ditugu? Taldeetan banatuta, bakoitzak horma-irudi bati begiratzeko eskatuko diegu, eta, gero, gainerako gelakideei azaltzeko: zer marrazki ikusi dituzten, zer adierazten duen horma-irudiak, hainbat lekutako jendea dagoen, zerk harritu dituen, etab.



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara;
Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak, Sentimenduak eta pertsonen arteko gizabidea.



50 minutu.



Zeintzuk dira gure eskubideak eta betebeharrak?



Gure ustez, zer eskubide dira oinarrizkoak? Eta zer betebehar dituzte eskubide horiek? Aurreko jardueretako ziklo bakoitza landu ondoren, taldeetan hausnartuko dute zer eskubide iruditzen zaizkien oinarrizko eta ezinbestekoak, eta zer betebehar ditugun eskubide horiek bete eta bermatzeko.



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak.



60 minutu.



Parte hartzeko jokia³



Taldeko kide guztiek elkarri lagunduz garatzeko prestatutako probak dituen ginkana bat. Jolas osoan zehar jende guztiak parte hartzea eta garapenean guztiak inplikatzeari lortzen saiatu behar da.



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Parte hartzea.



Parte hartzea, Pertsonen arteko harremanak.



30 minutu jolas bakoitzeko.

³Jokia hirugarren bilaketa-aukeran soilik dago eskuragarri.



Eskubideak eta betebeharrak imajinatzen



Nola irudikatzen dituzte komunikabideek gure eskubide eta erantzukizunak? Ikasleak taldetan banatuko dira, eta horma-irudi bana emango zaie, harekin lan egiteko. Taldeak horma-irudiaren esanahia eta sinbolismoa osatuko dituzten irudiak bilatu beharko ditu prentsan, iragarkietan, etab. Hau da, horma-irudian aurkezten denaren irudiak.



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak, Komunikabideak eta Internet.



60 minutu.

c. Sexu-aldeak onartzea. Gizon-emakumeen arteko aldeak identifikatzea*. Gizon-emakumeen eskubide-berdintasuna balioestea familian, lan-munduan eta gizarteetan.



Printzesa gudaria



Emakumeek gizonen eskubide berak dituzte? Eta zer diozu erantzukizunei buruz? Ikasleen artean printzesa gudaria ipuina banatuko da.



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak, Hezkidetza.



60 minutu.



Gnomo arrosa



Pertsona guztiok adierazten ditugu gure sentimenduak? Ba al da alderik gizonen eta emakumeen artean? Zertan laguntzen digu gure sentimenduak eta zirrarak askatasunez adierazteak? Irudikatu ditzakegu ipuineko eszenak marrazki edo collage batean?




Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Gatazken konponketa.



Gatazken kudeaketa, Hezkidetzak, Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutu.





2. gai-multzoa. Komunitatean bizitzea

a. Gizabidezko balioak gizarte demokratikoan: errespetua, elkartasuna, justizia, lankidetzeta eta bakearen kultura.



Zubiak eraikitzen

Pertsona guztiok trebetasun berak ditugu? Pertsona bakoitzak ahal duenaren ekarpena eginez gero, taldeak irabazten du? Jarduera honetan, espazio bat zeharkatu beharko dute, baina lurrean euskarri zuzen bat jarri gabe. Ikasleei azalduko zaie irudizko ibai bat zeharkatu behar dutela, eta zubi bat osatu behar dutela busti gabe igarotzeko.



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak, Elkartasuna, Parte hartze soziala eta borondatezko lana.



60 minutu.

b. Gizabidezko balioak aplikatzea ingurune hurbileko bizikidetzan eta gatazka-egoeretan (familia, ikastetxea, lagunak, herria). Gainerako jendearekin bizikidetzaz arazoak eta interes-gatazkak konpontzeko ulermen-jarrerak, elkartasuna eta elkarrizketari balioa emateko jarrerak garatzea...



Bake-asmoa



Ba al da filmik arazoak indarkeriaz konpontzen dituenik? Zer dugu gogoko film horietan, eta zer ez? Indarkeria baliozko metodoa da arazoak konpontzeko? Zer beste modu proposatu diezazkiekegu komunikabideei, oro har, gatazkak konpontzeko? Eta geure buruei?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara;
Gatazken konponketa.



Gatazken kudeaketa, Gizarteko komunikabideak eta Internet,
Gatazkak eta bakea.



60 minutu.



Zer egin hau egiteko...



Taldeak gatazka bat aukeratuko du. Zergatik hartu dugu gatazkatzat? Zer egin dezakegu gatazka hori konpontzeko? Bururatzten zaizkien ideiak eztabaidatu ondoren, bakarra aukeratuko dute konponbidetzat.



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Gatazken konponketa.



Gatazken kudeaketa.



50 minutu.



Urakana dator!



Pentsatu bidaia bat egitera zoaztela. Talde osoak erabaki behar du zer eramango duzuen. Zuen ustez, akordio batera iristeko gai izango zarete? Nola? Taldeko kide guztien iritzia eta parte hartzea kontuan izan dituzue adostasunera iristeko?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Parte hartzea.



Gatazken kudeaketa, Parte hartze soziala eta borondatezko lana, Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



60 minutu.



Txontxongiloa



Animatuko gara gatazkei buruzko eszenak material berrerabilgarriz egindako txontxongiloen bidez irudikatzen? Nola konpondu daitezke egoera horiek?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Gatazken konponketa.



Gatazken kudeaketa, Ingurumena, birziklatzea, poluzioa.



40 minutu.



Gogor zapalduz



Zer behar da arazo bat taldean konpontzeko? Zein estrategia erabil genezake joko honetan? Garrantzitsua da elkarrizketa gatazkek prebenitzeko eta kudeatzeko?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Gatazken konponketa.



Gatazken kudeaketa, Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



60 minutu.

c. Parte hartzeko eskubidea eta betebeharra. Parte hartzeko bideak balioestea.



Asma dezagun ipuin bat



Gai gara klaseko guztien artean istorio bat sortzeko? Zer abantaila du ipuina asmatzen ikasgela osoak parte hartu izanak?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Parte hartzea.



Parte hartze soziala eta borondatezko lana, Aniztasuna.



60 minutu.



Expo-partaidetza



Zer irudikatzen dute horma-irudietako irudiek? Talde osoa ados dago iradokitzen duenari buruz? Zuen taldeak irudika diezaieke gainerako taldekideei horma-irudian ikusten duzuenak?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Parte hartzea.



Parte hartze soziala eta borondatezko lana.



60 minutu.



Kokatzen



Antzeman dezakezu zer egoera proposatzen duen jarduerak?
Asmatzeko, garrantzitsua izan da guztien parte hartzea? Zuen ustez zer da errazagoa, konponbidea bakarrik ala taldean aurkitzea?
Nola antolatu zarete taldeko kide guztien iritzia jasotzeko?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara;
Parte hartzea.



Parte hartze soziala eta borondatezko lana.



60 minutu.



Hartu hitza



Zer modu daude munduan parte hartzeko? Zuen ustez, parte hartu daiteke hainbat eremutan, esaterako auzoan, eskolan edo etxean?
Eta nola egin dezakegu? Idatziko ditugu bururatzen zaizkigun ideiak azken poster zurian?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara;
Parte hartzea.



Parte hartze soziala eta borondatezko lana.



60 minutu.



Zer dio gure gorputzak?



Egin dezagun ideia-zaparrada bat parte hartu hitzaz. Zer hitzekin lotzen dugu? Irudika al dezakegu, taldeka, gure gorputzak, ideia-jasako hitzen baten letraren bat? Eta hitz osoa beste taldeekin batera?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara;
Parte hartzea.



Parte hartze soziala eta borondatezko lana.



30 minutu.



Plan ona



Nola susta dezakegu ikastetxearen parte hartzea birziklatze-plan batean? Zer ekintza egin behar dira plana betetzeko eta nola antolatuko gara jendea animatzeko? Zer abantaila ditu ahalik eta ikasle gehienek parte hartzeak?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara;
Parte hartzea.



Parte hartze soziala eta borondatezko lana, Ingurumena, birziklatzea eta poluzioa, Giza garapena eta garapen jasangarria.



60 minutu.

d. Erantzukizuna parte hartzen duen taldeko kide moduan dagozkien eskubide eta betebeharrak indibidualak gauzatzean eta eginkizunetan eta erabakietan parte hartzea.



Bizikidetzaren orekatuaren alde



Bururatzen zaizue familiako ohiko egoeraren bat eskubideak eta betebeharrak betetzen ez direna? Eta zergatik ez dira betetzen? Idatz ditzakegu proposamen batzuk horma-irudi zurian, berriro ez gertatzeko?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Gatazken konponketa.



Gatazken kudeaketa, Eskubideak eta betebeharrak.



50 minutu.



Banatzen duenak...



Teorian, pertsona guztiok eskubide berak ditugu. Baina betetzen da hori praktikan? Bidezkoa iruditzen zaizue baliabideen banaketa eskolan? Eta auzoan? Eta munduan? Zer egin dezakegu injustizia horiek saihesteko?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak, Elkartasuna, Berdintasunezko merkataritza-harremanak.



60 minutu.



Enkartelada



Zer iradokitzen digute irakasleak erakusten dizkigun argazkiek? Gustatzen zaizue haietan ikusten dena? Zergatik? Nola parte hartu dezakegu haietan ikusten dena salatzekeo?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Parte hartzea.



Parte hartze soziala eta borondatezko lana, Ingurumena, birziklatzea, poluzioa, Haurren lana.



60 minutu.

e. Gizarte-, kultura- eta erlijio-aniztasuna. Errespetu kritikoa norberarenaz bestelakoak diren ohitura eta bizimoduekiko. Baztertze-egoerak, desberdintasunak, diskriminazioa eta gizarte-injustizia identifikatzea.



Alda dezagun irudia



Zer iradokitzen dizue argazkiko neskatilak? Zer sentitzen duzue argazkia ikustean? Zenbat urte izango ditu, eta zer herrialdetakoa izango da? Zer egiten zaizu ezagun egoera horri buruz? Argazki bat beste batez ordezteko aukera duzue. Nolako argazkia nahi duzue?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Parte hartzea.



Haurren lana, Eskubideak eta betebeharrak, Berdintasunezko merkataritza-harremanak.



60 minutu.



Berdinak edo ezberdinak?



Ikasgelan guztiok berdinak gara? Eta etxean eta auzoan? Hobe da modu batekoa edo bestekoa izatea? Zergatik? Nolako izango litzateke mundua denok berdinak bagina?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak, Aniztasuna.



60 minutu.



Ura!



Pertsona guztiok aukera berak ditugu bizitza duin bat izateko? Ba al da alderik emakumeen eta gizonen, aberatsen eta pobreen artean? Zer egin dezakegu hori aldatzeko?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak, Hezkidetza, Botere-desberdintasuna, sarrera-desberdintasuna.



30 minutu.



3. gai-multzoa. Gizartean bizitzea

a. Gizarte bizikidetza. Elkarrekin bizitzeko arauak zehazteko beharra. Espainiako konstituzioan jasotzen diren bizikidetza-printzipioak.



Bizikidetza-dekalogo

Eskolan ba da gaizki sentiarazten dizuen egoerarik?



Askotan gertatzen da? Idatziko dugu gutun bat arazo horri buruz, eta arazoarentzako konponbide bat proposatu? Orain egin al dezakegu bizikidetzarako dekalogo bat gutun horiekin?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Gatazken konponketa.



Gatazken kudeaketa, Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



20 minutu.



Simon says



Jokoaren arauak entzuten eta errespetatzen ba al dakigu? Eta zer-nolakoa da gure psikomotrizitatea? Jarduera hau Simon says izenez ezagutzen den jolas tradizionalaren egokitzapen bat da.



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak.



20 minutu.



Birzikla dezagun



Ba dakigu zer gauza birzikla daitezkeen? Eta zer edukiontzi dagokion gauza bakoitzari? Zer gauza botatzen ditugu zaborrontzira eskolan? Eta etxean? Banatzen al ditugu produktuak, birziklatzeko?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Ingurumena, Eskubideak eta betebeharrak, Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa.



30-60 minutu (zikloaren arabera).



Zain ezazu zeure orria



Garrantzitsua da natura babestea? Zer egin dezakegu guk natura zaintzeko? Prest gaude lortzeko, ikaskide guztien laguntzaz?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Ingurumena, Eskubideak eta betebeharrak, Giza garapena eta garapen jasagarria.



30-60 minutu (zikloaren arabera).



Tantaz tanta



Proposatzen diren bi irudien artean, zuen ustez zeinetan aurrezten da ura? Garrantzitsua iruditzen zaizue erabiltzen dugun ur-kantitatea kontrolatzea? Zergatik? Zer egin dezakegu guk egunero-egunero gutxiago kontsumitzeko?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Parte hartzea.



Ingurumena, Giza garapena eta garapen jasangarria, Parte hartze soziala eta borondatezko lana.



30-60 minutu (zikloaren arabera).

b. Gizabidezko ohiturak. Babes zibila eta hiritarren lankidetzak hondamendi-kasuetan. Hiritarren segurtasun integrala. Defentsa bakearen zerbitzurako konpromiso etiko eta solidariorat hartzea.



Alda dezagun moda



Zenbateraino eragiten digu publizitateak erosteko garaian? Marka jakin bateko produktuak hobeak direla uste duzue? Zergatik? Marka bat sortu bagenezake, zer ezaugarri izatea nahiko genuke?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa, Haurren lana, Komunikabideak eta Internet.



60 minutu.



Problema segida



Ba al dakigu zer bide egiten duen produktu batek sortzen denetik merkaturatzen den arte? Bidezkoa iruditzen zaizue? Zer arazo ditu? Zer konponbide proposatzen dituzue?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Merkataritza-harremanak eta berdintasunezkoak, Eskubideak eta betebeharrak.



60 minutu.



Zer behar dugu



Zer oinarrizko behar ditugu? Guztiok aseta ditugu oinarrizko behar horiek? Behar duguna baino gehiago kontsumitzen dugu?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa, Eskubideak eta betebeharrak, Giza garapena eta garapen jasangarria.



60 minutu.

c. Bideko mugikortasun-arauak errespetatzea. zirkulazio-istripuen kausak eta arrisku-taldeak identifikatzea (oinezkoak, bidaiariak, txirrindulariak, etab.)



Automobilean edo autobusean?



Zer da hobeia bidaiatzeko: autoa ala autobus publikoa?
Zer argudio daude bataren nahiz bestearen alde eta kontra?
Zergatik hitz egin kontrako iritziak ditugun bi taldeen artean?
Zer da garrantzitsua horretarako?



Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara;
Gatazken konponketa.



Gatazken kudeaketa, Ingurumena, birziklatzea, poluzioa.



30 minutu.



Hedapen azkarra



Pentsa dezakezue zer gaitasun eta azkartasun duten loreek hedatzeko? Eta gutako bakoitza egiten dituen ekintza positiboak animatzen eta hedatzen saiatuko balitz? Hedatze-efektua ez da ikaragarria izango? Zer abantaila izango lituzke horrek?



Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara;
Parte hartzea.



Merkataritza-harremanak eta berdintasunezkoak,
Eskubideak eta betebeharrak.



60 minutu.

4. Baliabide osagarrien eranskina

Jarraian, **ALBOAN**en beste baliabide batzuen erreferentziak aurkezten dizkizugu. Ez daude aurkeztu berri dugun CD-DVDan, baina Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako lagungarriak izan dakizkizuke.

Batzuk webgunean formatu digitalean dauden eskuragarri: www.alboan.org, beste batzuk, berriz, haien formatu fisikoa dela eta, Bilbao, Iruñea, Donostia eta Gasteizko egoitzetan aurkituko dituzu.

www.alboan.org **webgunean**, lehen hezkuntzarako jarduera hauek daude:

- **Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina**
 - Eskolara etortzen naiz, horretarako eskubidea dut eta.
 - Esatetik egitera alde handia dago...labur dezagun tartea.
 - Ekintza-garaia da. Hartu parte hezkuntzaren aldeko giza katean.
 - Jarri zure pieza: guztiak dira beharrezkoak.
- **Milurtekoko garapenaren helburuak**
 - Mandalak.
- **Erakusketa Xabier ezkutatutako pertsonaiaren bila dabil... Etorbizuneko pertsonaiaren bila.**
 - Haizemailea.
 - Multzoak.
 - Nik gustuko dut.
 - Bidegabekeria baten historia.
 - Eta nik, zer egingo dut?
 - Has dadila ekitaldia!
 - Etorbizuneko pertsonaia.

Bilbao, Iruña, Donostia eta Gasteizko egoitzetan paper-formatuan aurkituko dituzu webguneko edo CD-DVDko argitalpenak eta **Munduko Hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara** proposameneko jolasak.

- **Eskubideak** eta betebeharrak jokoak.
- **Gatazken** konponketa jokoak.
- **Parte** hartzeko jokoak.